



Financiado / Finantzatuta:



Colaboradores/Laguntzaileak:



Zubirik hartuko du "Aste digitala zure udalerrian: klik batekin aski da" izeneko proiektua

Zubirik (Esteribar) Cederna Garalur Elkartearen proiektu horretan parte hartuko du, irailaren 26tik 30era bitartean. Cederna Garalur Elkartearen IKT Autobusa Nafarroako Mendialdeko 8 herritan izanen da, eta herri bakoitzean egonen den aste horretan herritarrei zabalik egonen da. Honako herri hauetan egonen da: Erronkari, Zubiri, Agoitz, Zangoza, Altsasu, Lekunberri, Bera eta Elizondo.

Irene Gastaminza, proiektu burua, IKT autobusean egonen da, astelehenean, goizeko 9:30etik 11:00etara.

IKT autobusa herritarrei zabalik egonen da astelehenetik ostegunera, 10:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era. Ostiralean bi tailer egingen dira, eta herritarrek horietarako izena eman ahal izanen dute autobusean bertan astean zehar. Tailerrak honako hauek dira: 'Ziurtagiri digitala eta NA elektronikoa', ostiralean goizeko 10:30ean, eta 'administrazio elektronikoa' eguerdiko 12:00etan.

Proiektu horren helburu nagusia da **teknologia berriak Nafarroako Mendialdeko herritarrei hurbiltzea**, eguneroko bizitzan erabiliz horien onurak jaso ditzaten; hartara, jarrera aktiboa izanen dute informazioaren gizaratean.

Nafarroako Mendialdeko herritarrei informazioaren gizarateak eta IKTek ematen dituzten aukerak sustatzea, zabaltzea eta horien berri ematea da gakoa. Bi gai lantzen dira nagusiki: 'Ziurtagiri digitala eta NA elektronikoa' eta 'administrazio elektronikoa (administrazio-e)'.

Izenburuak dioen bezala: '**Aste digitala zure udalerrian**' proiektuarekin gure asmoa da 'IKTBak Nafarroako Mendialdeko herritarren zerbitzura' izeneko programa astero eskualde-buru batera eramatea. Horretarako, Cederna Garalur Elkarteak proiektuaren eskura jarri du **IKT Autobusa, astez aste herritarrentzako informazio-, arreta- eta prestakuntza-gune izanen dena**. Proiektuaren onura jasoko duen publikoa Nafarroako Mendialdeko herritarrak dira.

Proiektua **2011ko irailetik abendura bitartean garatuko da**, 8 udalerritan. Asmoa da **astebetetz udalerrri batean IKTak eta horiek herritarrei ematen dizkieten aukerak sustatzeko**, horren inguruko prestakuntza jasotzeko eta zabaltzeko egitasmo osoa lantzea.

Ekintzak lantzeko asteak eta herriak honako hauek dira:

- Erronkari: irailaren 19tik 23ra bitartean
- Zubiri: irailaren 26tik 30era bitartean
- Agoitz: urriaren 3tik 7ra bitartean
- Zangoza: urriaren 17tik 21era bitartean
- Altsasu: urriaren 24tik 28ra bitartean
- Lekunberri: azaroaren 7tik 11ra bitartean
- Bera: azaroaren 14tik 18ra bitartean
- Elizondo: azaroaren 21etik 25era bitartean.

Berri honi al bait hedapen handiena ematea nahi genuke. Informazio gehiago nahi baduzue, gurekin jar zaitezketen harremanetan Cederna Garalur Elkartearen 'Enpresak eta Sustatzaileak' arloaren arduradun Irene Gastaminzaren bitartez 696539810 telefono-zenbakira deituta, edo igastaminza@cederna.es helbidera mezua igorrita.

Cederna Garalur Elkartearen informazio guztien berri jaso dezakezue www.cederna.es web orriaren bidez, twitter-eko @CedernaGaralur profilaren bidez, eta facebook-eko Cederna-Garalur orriaren bidez.

Zubirin landuko den proiektuaren sustapen-kartela igorri dizuegu, baita irekiera-ordutegia eta tailerren ordutegia ere.

Antsoainen, 2011ko irailaren 23an

Financiado / Finantzatuta:



Colaboradores/Laguntzaileak:

